

Ariketa hau test motako jarduera bat da. Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta bakarra da zuzena.

1. Beste erakunde batzuekiko harremana (adibidez, Aldundiarekin) koordinatzeaz arduratzen den zuzendaritza arloa:
 - a) Alkatetza eta Talde Politikoak
 - b) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza
 - c) Zeharkako Zerbitzuak Koordinatzeko Zuzendaritza.

2. Zuzendaritza hau Udalaren abokatua bezalakoa da:
 - a) Lehendakaritza Zuzendaritza
 - b) Zuzendaritza Juridikoa
 - c) Udaltzaingoaren Zuzendaritza

3. Adierazi zein den OKERRA:
 - a) Lehendakaritzako Zuzendaritza arduratzen da Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaz.
 - b) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritzak bulegoko materiala erosten du.
 - c) Zuzendaritza juridikoak gure segurtasuna bermatzen du, kaleak zainduz eta delituak egitea prebenituz.

4. Euskara Zerbitzua:

- a) Zuzendaritza batek eskatzen duenean, euskararen eta gaztelaniaren arteko ahozko eta idatzizko itzulpenaz arduratzen da.
- b) Euskara bakarrik hitz egiten duten pertsonak artatzeaz arduratzen da.
- c) Euskal kulturako ekitaldiak antolatzeaz arduratzen da, hala nola, pilota partidak edo euskal dantzak.

5. Zuzendaritza hau udal aterpetxeez arduratzen da:

- a) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza.
- b) Gizarte Ekintzako Zuzendaritza
- c) Hezkuntza eta Gizarte Sustapen Zerbitzua.

6. Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza:

- a) Donostian bizi garenok zerbitzuengatik ordaindu behar ditugun zergetatik dirua biltzeaz arduratzen da.
- b) Udalaren aurrekontua egiteaz arduratzen da.
- c) Plan eta proiektu garrantzitsuak koordinatzeaz arduratzen da.

7. Donostiako sorospen-etxea zuzendaritza honen mende dago:

- a) Hezkuntza eta Gizarte Sustapen Zerbitzua
- b) Gizarte Ekintzako Zuzendaritza
- c) Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza

8. Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zuzendaritza:

- a) Laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen da.
- b) Suteak itzaltzeaz eta salbamenduak egiteaz arduratzen da.
- c) Pertsonak ingurumenaren alde sentibilizatzeaz arduratzen da.

9. Udalaren harreman publikoez arduratzen den arloa:

- a) Alkatetza eta Talde Politikoak
- b) Komunikazio-arloa
- c) Euskara Zerbitzua

10. Barne Zerbitzu Orokorrez ere arduratzen den zuzendaritza da, adibidez, posta banatzeaz:

- a) Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza.
- b) Lehendakaritza Zuzendaritza
- c) Mugikortasun Zuzendaritza

11. Udaltzaingoaren Zuzendaritzak agente-talde bat du. Agente horiek:

- a) Hondamendiak gertatzen direnean laguntzen digute, esaterako, uholde handiak gertatzen direnean.
- b) Gure segurtasuna zaintzen dute trafikoa antolatuz, kaleak zainduz...
- c) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arduradunak dira.

12. Udaltzaingoak jartzen dituen trafikoko isunak biltzea da zuzendaritza honen eginkizunetako bat:

- a) Zuzendaritza juridikoa
- b) Finantza Zuzendaritza
- c) Mugikortasun Zuzendaritza

13. Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritza arduratzen da:

- a) Arratoiak edo intsektu-izurriak kentzeaz.
- b) Kaleak, ur-sareak eta estolderia mantentzeaz.
- c) Aurreko guztietaz.

14. Zuzendaritza hau arduratzen da udal-ondasunen zerrenda egiteaz eta eguneratzeaz:

- a) Esku Hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza.
- b) Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.
- c) Lehendakaritza Zuzendaritza.

15. Adierazi zein den erantzun ZUZENA:

- a) Lehendakaritza Zuzendaritza arduratzen da Lan Eskaintza Publikoaz (LEP).
- b) Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak osasun-kontrolak egiten ditu edariak erosten ditugun establezimenduetan.
- c) Mugikortasun Zuzendaritza kaleak oinezkoentzat jartzeaz arduratzen da.